

**ANDONI EIZAGIRRE***Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea*

# Zientzia eta teknologia telebistako albistegietan

**Aho batez onartzen da zientzia eta teknologia jendarteratzeko beharra eta horretan komunikabideek duten ardura. Zer ematen dute telebista-kateek zientziari eta teknologiari buruz? Eta nola? Erantzukizunari neurria hartu diote? Galdera horiek tarteko, telebistako albistegietan zientzia- eta teknologia-gaien tratamendua aztertu dugu, Kultura Zientifikoaren Elhuyar Laborategiarekin koordinatuta.**

2009ko bigarren seihilekoan ETB1, ETB2, TVE1 eta La2 telebista-kateak ikertu ditugu, zoriz aukeratutako hamabi egunetan (bederatzi astegun eta asteburuetako hiru egun); guztiak ere gaueko albistegiak ziren. Agi denez, gertatu da albistegirik ez izatea edo murriztuak ematea. Ale honetan gure analisi-matrizaren ertz batzuk aurkeztuko ditut; zehazki, diskurtsoarenak. Era berean, ez diet arreta ipiniko telebista-kateen arteko konparaketei.

## **GARRANTZI GUTXI**

Orotara, zientzia eta teknologiari buruzko 69 albiste hauteman dira, 64 astegunetan emitituak eta 5 asteburuetan; ETB1en 16 albiste eta ETB2n 23 albiste eman dira, bietan ere guztiak astegunetan. TVE1n, berriz, 18 albiste, 13 astegunetan eta 5 asteburuetan, eta, azkenik, La2en 12 albiste emititu dira.

69 albistetatik 3 (% 4) agertu dira goiburuan; sarrerako titularretan, orotara, 17 eman dira (% 25), eta gainontzeko 49 albisteak (% 71) ez dira agertzen bestelako une erabakigarrietan (bigarren sarrerakoan eta/edo agurrekoan), baizik eta albiste arrunt bezala.

Albistegian duten kokapena aztertuz gero, 69 albisteetatik 9 (% 13) agertzen dira 0:00-9:00' tartean; 55 albiste (% 80) 9:01'-18:00' tartean, eta 18:01'-27:00' blokean, berriz, 5 albiste (% 7).

Agerpenarekin eta kokapenarekin alderatuz, albistearen iraupenean emaitzak osasuntsuagoak dira. Hala, 40 albiste (% 58) iraupen luzeak dira (> 76''), 11 albiste (% 16) 36''-75'' bitartekoak dira, eta 18 albiste (% 26) motzak (< 35'') dira. Aldagai hauek eta beste batzuk aztertuta, egiazki, zientzia albisteen adierazgarritasun-maila txikia da. Salbuespenak salbuespen, ez zaie aparteko garrantzirik eman, eta bes-telako gaiak dira lehentasuna dutenak.

Hori da, albisteak modu orokor eta bateratuan ikertuta, lehen ondorioa. Zehaztapenak egin behar dira, ordea.

Gaiei dagokienez, hauek dira emaitzak: "zientzia eta teknologia" eremuan 17 albiste (% 25), "zientziaren inplikazioak" deritzegunean 40 albiste (% 58), "zientzia-politikak" blokeko 5 albiste (% 7) eman dira, eta "zientzia-sistema" delakoaz, berriz, 7 albiste (% 10).

## **IZAERA NEGATIBOA**

Gertakarien izaerari dagokionez, 69 albisteetatik 42 albistek dute izaera negatiboa (% 60), 27 dira izaera positiboa duten albisteak (% 39), eta bakar bat, berriz, neutrala (% 1). "Zientzia eta teknologia" gaiei buruzko 17 albisteetatik, 16 dira izaera positiboa dutenak, eta 1 albiste da negatiboa. Zientziaren inplikazioei buruzkoetan ere aldea dago; izan ere, 40 albisteetatik 31 dira izaera negatiboa dutenak, 8 izaera positiboa dutenak, eta 1 albiste da neutrala. Zientzia-sistemari buruzko albisteetatik 5 dira negatiboak eta 2 positiboak, eta, azkenik, zientzia-politikei buruzko 5 albisteak dira negatiboak.

Gehiago xehatuz gero, hobeto ulertzen dira emaitza ugari. Hala, dimentsio politikoa dute albiste guztietatik 30ek; horietatik 28 negatiboak dira, eta 2 positiboak. Dimentsio zientifikoa duten 24 albisteetatik, 17 dira positiboak, eta 7, berriz, ne-



© ERIK REIS/123RF

gatiboak. Hirugarrenik, dimentsio ekonomikoaren 15 albisteei arreta ipiniz gero, ikusten dugu 7 direla positiboak, 7 negatiboak, eta bat neutrala.

Zientzia-politikei arreta ipintzen badiegu, horri buruzko bost albistek dira negatiboak; horietako 4 ertz politikotik landuak, eta 1, ertz ekonomikotik. Zientzia eta teknologiarri bagazozkio, hemen aurkitzen ditugu emaitza diferenteenak. Izan ere, 17 albisteetatik bakar bat da izaera negatiboa duena. Ertz zientifikoa duten guztiak (14 albiste) dira positiboak; ertz ekonomikotik eta politikotik landuriko albiste bana ere positiboak dira, eta albiste negatiboa, berriz, ertz politikotik landurikoa da. Zientzia-sistemari arreta ipintzen badiegu, ikusten dugu 5 albiste negatiboetatik bi ertz ekonomikoari begirakoak direla eta beste hiru, berriz, ertz politikoa-ri dagozkio. Bi albiste positiboak ertz ekonomikotik eta politikotik emanak dira, hurrenez hurren.

Gainontzeko 40 albistek (% 58) zientziaren inplikazioei buruzkoak dira, eta ikusi dugu horietatik 31 albiste direla negati-

## **Badu garrantzia albisteari arreta eta horri trataerari arreta ipintzeak, zientzia eta teknologiarri buruzko albistek ulertuko baditugu.**

boak, 8 positiboak eta 1 neutrala. Zehaztu ditzagun emaitza horiek albisteen ertzei ere arreta ipinita. Kasu honetan ikusten dugu 31 albiste negatiboetatik 20 dimentsio politiko batetik landu direla. 4 dira ertz ekonomikotik eman direnak, eta 7 albiste negatibo dimentsio zientifikotik eman dira (zehazki, horrek adierazi nahi du ezagutza zientifikoa aurkitu dituela ebidentziak garabidearen arriskuak baiezta- tzeke). Zientziaren inplikazio positiboa lantzen duten albisteei dagokienez, 5 albiste ertz ekonomikotik aipatu dira, eta hiru, alderdi zientifikotik. Azkenik, izaera neutraleko albistek ertz ekonomikoa du.

Horiek dira ikerketaren emaitza batzuk. Badu garrantzia, beraz, albisteari arreta-

ri eta horri trataerari arreta ipintzeak, zientzia eta teknologiarri buruzko albistek ulertuko baditugu. Komeni da albistek unibertso berean sartzea, baina aldagai desberdinen arabera ezagutza ematea ere bai, datu orokorrek ez baituzte agerian uzten emaitzen berezitasuna eta trataeraren ugaritasuna. Egia da zientzia eta teknologia diziplina gisara lantzerakoan oro har aurkikuntza dutela hizpide eta inplizituki zein esplizituki hori modu positiboan tratatzen dela. Baina zientzia eta teknologiarri buruzko albisteetan zientziaren inplikazioak, zientzia-politikak eta zientzia-sistemaren in- gurukoak ere ematen dira; horiek albisteen % 75 osatzen dute, eta, testuinguru zabalagoa integratzearekin batera, dimentsio ekonomiko, zientifikoa edota politikoaren alderdi gatazkatsuak, arrisku- tsuak eta negatiboak horietan lehenesten dira, hain zuzen ere. ●

Informazio osagarria:  
 "Zientzia eta teknologia hizpide: telebistako albistegiak" txostena. <http://laborategia.elhuyar.org>